



***Elgoibarko Euskara* liburua aurkezten duzu gaur. Zer jaso duzu bertan?.**

Elgoibarko adin batetik gorako hiztunen euskara jaso nahi izan dut liburu honetan, 65 urtetik gorakoen hiztunena. Hizkuntzaren alor guztietan jasotzen ahalegindu naiz: fonologia, morfologia, sintaxia eta hiztegia. Era berean, elkarrizketetan erabiltzen ditugun egitura adierazgarriak ere jaso nahi izan ditut: esaerak, interjekzioak, onomatopeiak, bat-bateko erantzunak... azken batean, hizkera adierazgarria lortzeko beharrezko ditugun egiturak. Irakurgai batzuk eta entzungai batzuk ere badira liburuan.

Zer metodologia erabili duzu?.

Gaur egungo euskararen azterketa egin dut. Horretarako, hasieran berri-emaileekin egin genituen elkarrizketak, lotuak eta libreak, eta horrekin datu-base bat osatu nuen. Horko informazio guztia sailkatzen eta era egokian aurkezten ahalegindu naiz. Bigarren urrats batean, zalantzazkoak nituen egituren gainean galdeketa zehatzak egin nizkien berri-emaile batzuei. Euskal dialektologoek lehenago Elgoibarko hizkerari buruz idatzitakoa ere erabili dut.

Noiz eta nola erabaki zenuen herriko euskara jasotzea?.

Aspaldi samarreko kontua dut hau. Unibertsitateko lan baterako hasi nintzen honetan pentsatzen, eta Elgoibarko Izarraren eskaintza jaso nuenean, 1999an, hasi nintzen serio lan hau egiten.

Zer suposatu du zuretzat horrenbeste denborako lana argitaratzeak?.

Lasaitasun handia. Liburuaren aurkezpena dela eta, egun hauek ez dira lasai-lasaiak izan, baina egindako lana amaitzeak lasaitasuna eta gainetik pisu astun bat kentzea behintzat ekarri dit. Herriarekikoak egin ditudala iruditzen zait, lana behin bukatu ondoren.

Zein da lan honen helburu nagusia?.

Garai bateko euskaldunen, gure aiton-amonen hizkuntza-eredua ahal den era osoenean jasota uztea, hori nuen helburua.

Nori dago zuzenduta?.

Herritarrei eta gai hauetan interesa duen edozeini, Deba ibarreko jendeari, kanpokoei... Ahalik eta era errazenean jarri ditut azalpenak, hizkuntzalaritza-kontuetan ohitua ez dagoen jendeak arazorik gabe irakur dezan. Alde horretatik, ez da filologoei edo hizkuntzalariei zuzendutako liburu teknikoa; ez zen behintzat hori nire asmoa.

Zertan aldatu da elgoibartarron hizkera?.

Gauza askotan aldatu da gure hizkera. Geureak genituen ezaugarri asko indargalduta daude, desagertu ez baldin badira: fonologiako ezaugarri asko galdu egin dira, sintaxi egituretatik batzuk ere bai; berba asko ere bai, bestelako mundu batera goazenez; aditzean, forma asko ez dira erabiltzen, eta kalean ia ez da hika ari den gazterik entzuten; intonazioa bera ere bai. Ezaugarri askotxo, aukeran.

Ba al dago aurreko belaunaldiak erabiltzen zuten euskara galtzeko arriskua?.

Bai, jakina. Galtzen ari zaizkigu, esan bezala, hainbat eta hainbat ezaugarri. Batzuk geratuko zaizkigu, baina beste asko galduko zaizkigu. Zer herritan gauden ere, alde izaten da: euskarak oso osasun ona duen herrietan, ezaugarriak hobeto gordetzen dira. Ikusi besterik ez dago Azpeitia bezalako herri batera bagoaz.

Lehengoko euskara edo gaurkoa?.

Bien bat-egite bat aukeratuko nuke, uzten badidazu. Gure aiton-amonek ez zuten fisika kuantikoaz euskaraz jarduten, eta ez zuten eskolako eta administrazioko euskara ezagutzen. Hori da gaur egungo euskararen abantaila. Hala ere, haien euskara askoz ere aberatsagoa iruditzen zait lagunarteko elkarrizketetarako, familia girorako, elkarri adarra jotzeko, txisteak egiteko, ipuinak kontatzeko, eta abar eta abar.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Elgoibarren?.

Irakaskuntzatik gazte guztiak irteten dira euskaldunduak, eta hori asko da. Horri eusten eta adinean gora doazen neurrian erabilera ez jaisten ahalegindu behar. Eta ez da batere erraza. Hala ere, Udala eta Elgoibarko Izarra lan handia egiten ari dira erabilera indartzeko, eta urte batzuetatik hona hobera egin duela esango nuke.

Non eskuratu ahal izango da kaleratutako liburua? (noiztik aurrera, prezioa, argitaratutako aleak...).

Mila ale argitaratu dira, eta 15 eurotan salduko da. Herriko eta Deba ibarreko liburu-dendetan salduko da, eta hirietako liburu-dendetan ere, pentsatzen dut. Udaleko Euskara zerbitzua arduratuko da zabalkundeaz.